

Herrialde aberatsek baso tropikalak soiltzen dituzte

Nazioarteko merkataritzak deforestazioan duen eragina neurtuta, ondorioztatu dute herrialde aberatsetan zenbait produktu kontsumitzeak (hala nola soja, kafea, kakaoa, palma-olioa eta egurra) lotura zuzena duela baso tropikalen soiltzearekin. Herrialde aberats horietan bertako basoen azalera gora egin badu ere, haien deforestazio-aztarna handitu egin da, hain zuzen oihan tropikaletan eragiten dutenagatik. G7ko herrialdeetako biztanle bakoitzeko 3,9 zuhaitz mozten dira urtean, batez beste.

Ikusi dutenez, Europan eta AEBn kontsumitzen den kafea ekoizteko, Vietnameko basoak murrizten ari dira. Alemaniaren kakao-kontsumoa, berriz, mehatxu handia da Boli Kostako eta Ghanako basoentzat; eta nekazaritza-produktuen Japoniako eskariak lotura zuzena du Tanzaniako kostaldearen soiltzearekin. Joera hori gorantz doa, gainera.

Ikertzaileek azpimarratu dute ez dela nahikoa norbere herrialdeko basoak zaintzea; nazioarteko merkataritzaren eta deforestazioaren arteko lotura horiek argitzea ere funtsezkoa da, basoak behar bezala babestu ahal izateko. [Nature Ecology & Evolution aldizkarian argitaratu dute lana.](#) ●



Kafe-sailak, Vietnamen. ARG.: Trung_Le / Pixabay.

Gene baten saltoa landareetatik intsektuetara



Lehenengo aldiz ikusi da intsektuek landareetatik geneak eskuratu izan dituztela. ARG.: Wikimedia.

Eboluzioan arrunta izan da espezie batek beste bati geneak transferitzea. Milioika urtean, bakterio zein ondoek transferitutako geneak erabili dituzte animalia eta landare askok, eta gaitasun metaboliko edo defentsa-estrategia berriak garatu dituzte horri esker, besteak beste. Orain arte, ordea, ez zen inoiz identifikatu landare batek intsektu bati naturalki transferitutako generik. Max Planck Institutuko ikertzaileek euli zurietan ikusi dute lehenengoa, jaten dituzten landareen toxinak neutralizatzeke balio diena.

Ikertzaileek oraindik ez dakite nola lortu zuen euli zuriak landare baten genea eskuratzea, baina balioteke birus batek txertatu izana landarearen material genetikoa euliaren genomari. Horri esker, pozoi-tzeko arriskurik gabe jan dezake landare askok babes-neurri modura erabiltzen duten toxina, eta baliteke horregatik izatea euli zuria, behin eta berri, izurrite ikaragarrien eragilea. [Cell aldizkarian argitaratu dute ikerketa.](#) ●